

UDALAREN EDO UDAL-ADMINISTRAZIOKO BIDEEN ERABILERA ETA APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

1. artikulua.- Xedea

Udal honek, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 25. artikuluan, toki-korporazioen ondasunen araudian eta bat datozen beste lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, udal-titulartasun edo -administrazioko bideen erabilera arrunta, berezia eta normala arautzen ditu, ibilgailu astunek horietatik zirkulatzeagatiko eta, bereziki, basogintza-ustiapenen ondorioz zura eta apeak garraiatzeagatiko narriadura saihesteko asmoz.

Ordenantza honen ondorioetarako, 8 tona baino gehiagoko pisu gordina duten ibilgailuak jotzen dira astuntzat.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Ordenantza udal-mugarte osoan aplikatuko da.

3. artikulua.- Lizentzia

Udal-titulartasun edo -administrazioko bideak erabili behar dituzten garraiolariak eta kontratistek udal-lizentzia eskatu beharko dute. Horretarako, alderdi hauek zehaztu beharko dituzte:

- a) Lursailaren edo mendiaren jabea edo obren kontratista identifikatzeko datuak.
- b) Garraiorako erabilitako ibilgailuei buruzko datuak, zehatz-mehatz, matrikula, egin beharreko bidaia-kopurua, bidai bakoitzeko zama eta ibilbideak, kokapen-planoan jasoak.
- c) Garraiatu beharreko materialen bolumena, estereotan edo tonatan.
- d) Garraioa hasteko eta amaitzeko data.
- e) Materialak bilduko badira, tokiaren adierazpen grafikoa.
- f) Jatorriko mendiaren edo lekuaren izena eta kokapena, hala badagokio, katastro-erreferentzia zehaztuz.
- g) Hala badagokio, espezie-aprobetxamendurako bidea ematen duen mozketa edo obrarako baimena edo lizentzia, emateko eskumena duen agintaritzak jaulkia.

Lizentzia-eskaerarekin batera, ezarritako gutxieneko fidantza eman beharko da eta, nolnahi ere, izapidetzeko, horretarako udal-inprimakia sinatu beharko da.

4. artikulua.- Debekuak

Debekatuta dago hauek erabiltzea:

- Beldar-ibilgailuak.
- Ibilgailu kateatuak.
- Bide-zoru gaineko arrasteko ibilgailuak.
- Errodatze-bandako ibilgailuak

- 26 tonatik gorako gehieneko pisu gordina duten ibilgailuak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.

5. artikulua.- Ebazpen-epea

Lizentzia emateko prozedura ebazteko gehieneko epea 15 egun izango dira, lizentzia 3. artikuluko betekizunak betez eskatzen denetik zenbatuta. Epe hori igarotakoan, baietsizat joko da berariazko ebazpenik ez badago.

6. artikulua.- Tasak

1. Udal-lizentzia emateko, nolahi ere, ezartzen diren tasak ordaindu beharko dira, eta ordaindu arte ezingo da erabilera edo aprobetxamendua hasi.
2. Tasa ordaintzen ez bada, lizentzia automatikoki errebokatuko da.
3. Udal-titulartasun edo -administrazioko bideen aprobetxamendu bereziagatik tasa gisa biltzen diren kopuruak, nolahi ere, bideak zaintzeko, mantentzeko eta hobetzeko obretarako erabiliko dira.

7. artikulua.- Luzapena

Aprobetxamendua lizentzian adierazitako datan bukatzen ez bada, dagokion luzapena eskatu beharko da.

8. artikulua.- Agirien aurkezpena eta zaintza

Garraiolariak, garraioaren une orotan, lizentzia emateko udal-erabakiaren jatorrizko jakinarazpena edo kopia eta tasaren ordainketa eta fidantzaren gordailua justifikatzen dituzten ordainketa-gutunak aurkeztu beharko ditu. Aipatutako agiriak udal-agente edo -arduradunei erakutsi beharko dizkie haiek eskatzen dituztenean.

9. artikulua.- Fidantza

Ordenantza honek araututako lizentzia eskatzen duenak, bideak erabili baino lehen, lizentzia-eskaerarekin batera, fidantza bat utzi beharko du, bideen erabileraren ondorioz sor litezkeen kalteak estaltzeko.

Fidantza eskudirutan edo litezkeen kalteak estaltzen dituen banku-abalaren bidez egin ahalko da. Era berean, udalarekin adostu ostean, fidantza aseguru-polizaren bidez egin ahalko da.

Fidantzaren munta II. ERANSKINAREN arabera kalkulatu da.

Bide bat erabiltzeagatik utzitako fidantzak ezingo du inoiz beste obra edo mendi-ateratze baterako balio, lanak aldi berean egin arren. Gainera, eskaerarekin batera fidantza

aurkezteak ez du inoiz esan nahiko nahitaezko lizentzia emango denik.

Bidea lizentzia eman gabe erabiltzen hasten bada, hasieran bidea kontserbazio-egoera bikainean dagoela ondorioztatuko da; beraz, antzemandako hondamenak interesdunari egotziko zaizkio eta hurrengo artikuluan zehaztutako moduan jardungo da. Horretarako, eskatzaileak, eskaera eta fidantza aurkezteaz gain, ordenantza honen III. eranskinean dagoen adierazpena sinatuko du.

Fidantza itzultzeko espedientea ebazteko gehieneko epea hilabete bat izango da, eskatzen denetik zenbatuta. Aldi horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, ezetsi dela ondorioztatuko da.

10. artikulua.- Bide-garbiketa

Aprobetxamenduaren onuradunek, nolnahi ere, bidearen erabilera komun eta publikoa bermatu beharko dute. Horretarako, behar diren konponketa eta garbiketa guztiak egingo dituzte aprobetxamenduak irauten duen bitartean. Bestela, udalak egin ahalko ditu, haien kontu, dagokien zenbatekoa utzitako fidantzatik kenduz. Fidantza nahikoa ez bada, diferentzia eskatuko da, zenbateko guztia estali arte. Nolanahi ere, onuradunek behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte zirkulazioari kalterik ez egiteko. Hartara, ezingo dute bidea zuhaitzen enborrez edo adarrez okupatu eta ibilgailuek bide publikoan uzten dituzten produktu guztiak, hala nola lurrak, harriak eta abar, kendu beharko dituzte.

11. artikulua.- Txostenak

Udal-zerbitzuek ikuskapen-ikustaldia egingo dute eta udal-bideen egoerari buruzko txostenak jaulkiko dituzte, erabili aurretik eta ondoren. Txosten horiek argazki-dokumentazioan, planimetrikoan, ikus-entzunezkoan eta abarretan egon ahalko dira oinarrituta. 9. artikuluan ezartzen den moduan, bidea nahitaezko lizentzia eman gabe erabiltzen hasten bada, hasieran bidea kontserbazio-egoera bikainean dagoela ondorioztatuko da.

12. artikulua.- Konponketa-obrak

Txosten teknikoa ikusita, egin behar diren konponketak jakinaraziko zaizkio lizentziaren titularrari, hala badagokio, baita horretarako epea ere. Aipatutako epea eskaturiko konponketak egin gabe igarotzen bada, udalak subsidiarioki egingo ditu, betebeharpekoaren kontu, dagokien zenbatekoa utzitako fidantzatik kenduz. Fidantza nahikoa ez bada, diferentzia eskatuko da, kalte guztiak estali arte.

Sortutako kalteak konponezinak badira, udalari kalte-ordaina emango zaio, alegia, suntsitutako ondasunen balioaren munta edo sortutako narriaduraren zenbatekoa.

Udal-bide berak batek baino gehiagok erabiltzen badu eta hondamenak badaude, erantzukizunak proportzionalki banatuko dira erabiltzaileen artean.

13. artikulua.- Bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea

Udalaren eta erabiltzaileen artean desadostasunak badaude kalteen balioespenari edo horien konponketari buruz, alderdiek, berariaz adostu ostean, bitartekaritza-, adiskidetze- eta arbitraje-prozeduretara jo ahalko dute; horiek, nolana ere, alderdien arteko ondorengo akordio, itun, hitzarmen edo kontratuaren arabera jardungo dute.

Kasu horretan, prozeduron ondorioz sortzen diren gastuak erabiltzaileak ordaindu beharko ditu.

14. artikulua.- Baja-adierazpena

Aprobetxamendua bukatutakoan, interesdunek baja-adierazpena aurkeztu beharko diote udal-administrazioari; horrek, administrazioa ados egonez gero, aurkeztu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

15. artikulua.- Jabeen erantzukizuna

Garraiatutako materialen jabeak izango dira ordenantza honen ondoriozko betebeharrak betetzearen erantzule solidarioak.

16. artikulua.- Harrobiak, meatzaritza-jarduerak eta lur-mugimenduak

Bide horiek materialak harrobietatik erauzteko jardueretarako eta lur-mugimenduetarako erabiltzen badira, jarduera horien titularrak diren enpresek bideak ibilbide osoan mantentzeko betebeharra izango dute. Aldizka, udal-zerbitzu teknikoek bideak ikuskatuko dituzte, eta aipaturiko enpresek ikusten diren hondamenak konpondu beharko dituzte.

I. ERANSKINA

TARIFAK

Jabari publikoa okupatzeagatiko tarifak («Udal-titulartasuneko bideak erabiltzea») aprobetxamendu-mota bakoitzari dagozkionak dira.
1. Bideak zurak eta beste material batzuk garraiatzeko erabiltzea: $0,32 \text{ €/m}^3 + \% 10$ ibilitako kilometro bakoitzeko, edo dagokion zati proportzionala kilometro osora heltzen ez bada.

II. ERANSKINA

Fidantzaren munta eskala honen arabera kalkulatu da:

- Gutxieneko zenbatekoa: 1.200 €
- Gehienez 350 m³: 1.500 €

- Gehienez 750 m³: 2.100 €
- Gehienez 1.500 m³: 3.000 €
- Gehienez 3.000 m³: 5.200 €
- 3.000 m³ baino gehiago: 7.800 €

Nolanahi ere, ehuneko hamarreko fidantza-errekargua aplikatuko da ibilgailuak zirkulatzen duen udal-bideko kilometro bakoitzeko, edo dagokion zati proportzionala kilometro osora heltzen ez bada.

III. ERANSKINA

Nik,(e)k (NAN zk.:), enpresaren (IFZ:) izenean, udal-titulartasuneko bidea erabiltzeko lizentzia eskatzen dut.

Horretarako, udal-titulartasun edo -administrazioko bideen aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzaren edukiaren berri dudala adierazita:

Lehena.- Hori arautzen duen ordenantzaren arabera, eskaerarekin batera araudiak eskatzen duen dokumentazioa aurkezten dut.

Bigarrena.- Ordenantzak eskatzen duen gutxieneko fidantza, 1.200 €-koa, aurkezten dut. Fidantza hori lizentzia jasotzean eta dagokion tasa ordaintzean eguneratuko dut, garraiatuko diren m³-en eta erabiliko diren udal-bideen km-en arabera.

Hirugarrena.- Era berean, hau adierazten dut:

1. Utzitako fidantzak bidea erabiltzeagatik sor litezkeen kalteak estaliko ditu.
2. Bide bat erabiltzeagatik utzitako fidantzak ezingo du inoiz beste bat erabiltzeko balio, aprobetxamenduak aldi berean egin arren.
3. Eskaerarekin batera fidantza aurkezteak ez du inoiz esan nahiko nahitaezko lizentzia emango denik.
4. Bidea lizentzia eman gabe erabiltzen hasten bada, hasieran bidea kontserbazio-egoera bikainean dagoela ondorioztatuko da; beraz, antzemandako hondamenak interesdunari egotziko zaizkio eta udal-ordenantzan zehaztutako moduan jardungo da.